

# GAILURRIK ALTUENA ESKALATZEN

—  
Ekintzaile  
berrientzako  
gida laburra

# EKINTZAILEAREN HIZTEGIA

**“Posible izan dadin, beharrezkoa da ezinezkoa dena egiten saiatzea”**

- Herman Hesse

**Ekitea:** Bereziki arriskua edota zailtasuna duen obra, negozio, ahaleginari hasiera ematea.


**“Borondatea lurruna, elektrizitatea eta energia atomikoa bezalako indar eragileak baino boteretsuagoa da”**  
- Albert Einstein

**Adorea:** Gizakiaren berezko bertutea, arazoei irtenbidea emateko pertsonak duten borondate gisa defini daiteke. Adorea da arazoak garaitzeko eta lehenagotik egin nahi zena aurrera ateratzeko gaitasuna. Adorea egoera garrantzitsu eta baliotsuetan, porrot egitearen beldurra garaitzean datza, eta era berean, zerbait norbaitengatik edota zerbaitengatik egitearen indar gisa ere ulertu ohi da. Adoreak gure buruaz harro, ongi sentitzen laguntzen gaitu, zailtasunak eta beldurra eragiten digun momentuen aurrean. Beraz, garrantzitsua da zoritxarrei aurre egiten jakitea benetan behar dugunean.

**Borondatea:** Izaeraren ezaugarria, norberak zerbaiti ekiteko duen ahalmena da, eta erreferentzia egiten dio ekintza bat aurrera ateratzeko nahia eta indarrari, esperotako emaitzarekin bat eginez. Borondateak etorkizuneko ordainsariaren esperantza eragin dezake esfortzua egiten duen pertsonarengan.

**Iraunkortasuna:** Dagoeneko lanean hasi garen proiektuan iraunkor mantentzea, bidean zailtasunak topatu edota helburuak betetzen ez badira ere.

**“Ausarta izatea ez da beldurra ez sentitzea, menperatzea baizik”**  
- Nelson Mandela



## O. SARRERA GAILURRIK HANDIENA ESKALATZEN

**“Gailur altuko mendia igo ondoren, ohartzten gara beste hainbat mendi daudela igotzeke” - Nelson Mandela**

Gizakiak bere burua gainditzeko duen nahia da lorpen eta helburuak aurrera ateratzearen gakoa. Besteekiko eta eurenganako grina lehiakorra da eskalatzaile onenen balentriaren oinarria, zeinak gai diren sufrimenduari aurre egin, mugak gainditu, eta egunetik egunera apur bat altuago iristeko.

Gailurrera igotzean, eskalatzaileari poza eragiten dio bere burua garaitu ahal izateak, bidean aurki ditzakeen oztopoak gainditzeak, eta gertatzen diren ezbeharren aurrean indartsuagoa izateak. Eskalatzailea ongi sentitzen da ahaleginak egin eta onena ematean.

Azken finean, eskalatzea bizitza bezalakoa da; bidean ametsak eta proiektuak egi bilakatu nahi dituenari esfortzu fisiko zein psikologikoak sor diezaiokkeen gogobetetzea emango diote ardurak, ausardiak, zailtasunak gainditzeak eta ikasteak.

Bidea, ordea, ez da erraza izaten. Eskalatzaileek hotzari, beroari,


beldurrari, egarriari eta minari aurre egin behar izaten diote, eta arazo horiek modu egokian konpontzeko beharrezkoa da borondatea. Pausorik zailena da gune erosotik ateratzea. Ez da erraza. Beharrezkoa da gure enpresa martxan jartzeko geldiarazten gaituzten barne- eta kanpo-beldurrei aurre egitea. Ekintzaile bilakatzeko gidaliburuak irakurri ohi ditugu, baina nekez ulertzen ditugu; jendearekin hitz egiten dugu, eta zalantza nabari daiteke euren begietan. Laster ezabatzen dugu ideia burutik. Hala eta guztiz ere, aurrera egin nahiak kontzientzia astintzen jarraitzen digu... Eta, aurrera egiten badugu?

Ez zaitugu limurtu nahi, ezta inor ekintzaile izatera bultzatu nahi ere, ekintzailearen bidea gogorra, zaila, konpromiso eta esfortzu handikoa baita. Baina, bere baitan aurrera egin dezakeela uste eta nahi duen oro lagundu nahi dugu. Bultzada eman nahi diogu bere lanbidea sortu, eta ibilbide profesionalaren eta lan-etorkizunaren gidaritza hartu nahi duenari, eta, bide horretan,

elkartasuna eta laguntza eskaini. Gure ezagutza eta eskura ditugun baliabideak eskainiko dizkiogu ametsak eduki eta bere negozioia martxan jarri nahi duenari.

Izan ere, badakigu ekintzailearen bidea pozgarria eta atsegingarria dela, modu pertsonal zein profesionalean hazteko aukeraz betea.

**“Azken finean, ez duzu oroituko zenbat denbora igaro duzun bulegoan edo belarra moztzen. Igo ezazu mendi madarikatua”**  
- Jack Kerouac



# 1. ESKALATZAILEA

“Garrantzitsuagoa da gramo bat ekintza, tona bat asmo baino”

Guztiok izan gaitezke ekintzaileak, guztiok baititugu negozio-idea interesgarriak.

Nahiez harago, ordea, ekin egin behar da, eta erabaki eta ideiak aurrera atera. Pauso horrek egiten ditu ezberdin ekintzailea eta soldatako langilea.

Ekintzaile izateak zure ideia aurrera ateratzean datza, sakrifikatzeo gaitasuna eduki eta konpromisoa izatea da, eta zailtasun eta ezbeharraren aurrean, behar adina ilusio eta baikortasunez jokatzeko.

Zer ezberdintasun dago, ordea? Nola lortzen dute zenbaitek ideiak euren negozio-iturri bilakatzea? Erantzuna erraza da, ezberdinta-

sunak jarreraren dago.

Baina, zer jarrera eduki behar da? Zalantzak alde batera utzi, eta ekintzaile izan nahi dutenek ondo-rengo ezaugarriak dituzte:

- **Erabakitzen dakite:** ekintzaileek jarrera baikorra daukate ezustekoaren aurrean, eta zailtasunak ikasteko eta hobetzeko aukera bilakatzen dituzte. *“Araoak bidean aurkitzen diren harriak dira; aingura gisa erabil ditzakezu hondoratzeo edo eskailera modura, bertara igo eta hobe ikusteko”.*
- **Harremanetarako gaitasuna daukate:** ekintzaileak pertsona, bezero, hornitzaile, partner... ezberdinekin harremanetan jartzeko gaitasuna daukate, eta enpatiaz jokatzeko dute, solaskidera egokituz. *“Besteekiko tratua da arrakastaren gakoa”* (Doménico Cieri Strada).
- **Konprometituak dira:** pertsona ekintzaileak badaki gailurrera igotzeak esfortzu handia eragiten duela, eta ez dute amore ematen zailtasunen aurrean. *“Arrakasta porrot batetik bestera joatea da, gogorik galdu gabe”* (Winston Churchill).
- **Ausartak dira:** pertsona ekintzaileak erabakiak hartzerantz ausartzen dira, nahiz eta jakin huts egin dezaketela, eta onartuz huts egingo dutelako beldurra dutela. *“Arrakasta lortu duen enpresa batean, badago inoiz erabaki ausarta hartu zuenik”* (Peter Drucker).
- **Urduriak dira:** pertsona ekintzaileak zalantza egiten eta eztabaidatzen daki, galderak egiten ditu, eta laguntza eskatzen du behar duen bakoitzean. *“Zalantza egiten ikastea pentsatzen ikastea da”* (Octavio Paz)



# EKINTZAILEAREN GALDERAK. ¿EKINTZAILE-PROFILA AL DAUKAZU?

Ba al duzu arriskuak zure gain hartzeko gaitasunik?

Ba al dakizu arazoak konpondu eta erabakiak hartzen?

Ba al duzu agintzeko eta antolatzeo gaitasunik?

Motibatuta al zaude?

Baikorra al zara?

Ba al dakizu besteekin harremanetan jartzeko?

Ba al dakizu sakrifikatzen?

Gustuko al duzu gauza berriak egitea?

Fio al zara zeure buruaz?

Iraunkorra al zara?

## 2. BIDEA

**“Unibertsoan, gauza zail oro hasten da erraz izatetik. Unibertsoan, handi izaten amaitzen duen oro txiki izaten hasten da. Hori dela eta, jakintsuak ez ditu obra handiak sortzen, eta, horrela, bilakatu ohi ditu handi.” - LXIII, Tao Te Ching, Lao Tse**

Igotzen hasi aurretik, eskalatzaileak bidearen inguruko informazioa bildu behar du zeri aurre egin behar dion jakiteko eta benetako konpromisoa aztertzeko. Era berean, bidearen ezaugarriak eta bertan aurki daitezkeen zailtasunak, ibilaldia egiteko beharrezko denbora eta eguraldia aztertu behar ditu, baita ibilbidearen antolakuntzan garrantzitsuak diren beste zenbait aldagai ere. Hainbat kanpo-faktore daudenez, garrantzitsua da gure esku daudenak ongi antolatzea.


Eskalatu baino lehen bidea ongi antolatzea garrantzitsua den moduan, beharrezkoa da gure negozio edo ideiarekin gogoeta eta bideragarritasun-ikerketa bat egitea.

Gauzatu al daiteke? Errentagarria al da? Ba al dago beharrik egungo merkatuan?

Erantzun beharreko zenbait galdera erantzun behar dira buruan daukagun ideia bideragarria izan dadin. Lan horretan, lagungarri izango zaizkizun bi ariketa proposatuko dizkizugu zure ideia aurrera atera dezakezun aztertzeko, eta era berean, etorkizuneko inbertitzaile eta kideen aurrean proiektua aurkeztu, justifikatu eta defendatzeko.



### A. NEGOZIO PLANA: BIDERIK ONENA ZURE PROIEKTUA BABESTU ETA AURKEZTEKO



## B. CANVAS EREDUA: NORBERA EZAGUTZEKO MODURIK ONENA, ZU ETA ZURE IDEIA

Azken urteetan, Canvas eredua izeneko tresna erabili ohi da negozio-ereduak irudikatu eta lantzeko; alegia, Alex Osterwalderrek 2010an sortua.

Bederatzi esparru orrialde bakarrean aztertzean datza, eta dokumentuak negozio-ideiaren inguruko ikuspegi orokorra eskaintzen du, eta elementu ezberdinen arteko loturak erakutsi.

<b>BAZKIDE NAGUSIAK</b>  Zein dira gure bazkide nagusiak?  Zein dira gure hornitzaile nagusiak?	<b>EKINTZA NAGUSIAK</b>  Zein ekintza behar ditu gure enpresa estrategiak?	<b>ENPRESA ESTRATEGIA</b>  Zein balore ari gara ematen gure bezeroei?  Zein arazo ari gara konpondu dadin laguntzen?  Zein behar ari gara asebetetzen?  Zein motatako produktuak eskaintzen dizkiogu gure bezero bakoitzari?	<b>BEZEROEKIKO HARREMANA</b>  Zein motatako harremana izango dugu gure bezeroekin?	<b>BEZERO ANTOLAKETAK</b>  Norentzat ari gara sortzen balorea?  Zein dira gure bezero garrantzitsuenak?
	<b>BALIABIDE NAGUSIAK</b>  Zein baliabide behar ditu gure enpresa estrategiak?		<b>BIDEAK</b>  Zein komunikabideren bitartez ari naiz bezeroak erakartzen?	
<b>GASTU EGITURA</b>  Zein gastu ditut? Finkoak eta aldakorak			<b>DIRU-SARRERAK</b>  Nondik dator kit dirua?	

### 3. BEHARREZKO MATERIALA

**“Ideia berritzailea duen gizakia eroa da, arrakasta lortzen duen arte” - Mark Twain**

Igoko dugun bidea antolatu ondoren, igoeran beharko dugun materiala aukeratu eta zehaztu behar da: soka metroak, arnesak... Behar dugun materiala al daukagu eskura? Pisu gehiegi eramango al dugu soinean? Igoera modu azkarrean eta seguruan egiteko, beharrezkoa da lehenik eta behin, aipatutako ideien inguruan gogoeta egitea.

Eskalatzaileak igoerari aurre egiteko behar duen materiala prestatu behar duen moduan, ekintzaileak baliabide ekonomikoak zenbatu eta proiektuaren errentagarritasuna ere izan behar ditu kontuan, eta, ondoren, ekintzaile ororen erronka handienetakoari ekin behar dio: finantzaketa.

Ondorengo galderak lagungarriak izango dira zure finantza-analisia osatzeko:

#### Inbertsioa

Zer inbertsio egin behar da proiektua martxan jartzeko? Egin ezazu proiektua martxan jarri aurretik izango dituzun inbertsio guztien zerrenda zehatza. Ez izan kontuan eguneroko gastuak, inbertsio mugiezinak (lokala, altzariak, obrak, informatika-materiala eta programak...), eta produktuak zein lehengaiak lortzeko inbertsioak.

#### Finantzaketa

Zenbat diru daukazu? Eta zenbat falta zaizu? Nori eskatuko diozu? Egiaztatu zenbat diru lortu dezakezun zure aurrezkietatik, eta senide eta lagunuen maileguetatik. Zehaztu non, nori eta nola eskatuko diozun falta den diru-kopurua. Bankuko ohiko mailegutik harago, egun, finantza-bide ugari aurki daiteke, momentuan aztertu daitezkeenak: diru-laguntzak, mikro kredituak, crowdfunding plataformak, business angels, arrisku-kapitala...

#### Salmenta-aurreikuspena eta aukerak

Zenbat salduko duzu? Ondorengo atala bideragarritasun-ikerketako zailena da. Saia zaitez merkatuan adibideak topatzen, eta kompetentzia aztertzen zentzuzko aurreikuspena egiteko. Kontuan izan produktu edota zerbitzuaren garaia noiz den; izan ere, ekintzaren arabera, aldaketa nabariak egon daitezke fakturazioan urtean zehar.

Zer irabazi-marjina eskuratuko duzu? Salduko duzuna baino, garrantzitsuagoa da salmena bakoitzetik eskuratuko duzun irabazi-marjina zenbatekoa izango den zehaztea. Horretarako, beharrezkoa dira jakitea kostaprezioa eta salmenta-prezioa.

#### Gastu aurreikuspena

Zer ordaindu behar duzu hileroko negozioak ongi funtzionatu dezan? Egin ezazu gastu guztien zerrenda zehatza. Eskaini behar adina denbora; izan ere, beti dago zer gehitu. Ohikoak dira ondoko gastuak: alokairua, soldatak (gizarte segurantzaren barne), hornidurak (argia, ura, telefonoa, Internet), zerbitzu profesionalak (abokatuak, arkitektoak, informatikariak, kudeatzaileak, aholkulariak), aseguruak (lokala, erantzukizun zibila eta ibilgailua), publizitatea, papertegia (inprimagailuko tinta, papera, materiala), eta abar. Kontuan izan negozioa martxan jarri aurretik izango dituzun gastu guztiak; dela publizitate-kanpainak, dela profesionalen zerbitzuak...

#### Zergak

Zer zerga ordaindu behar ditut? Aztertu zure jarduerarako BEZA atxiki behar duzun ala ez, eta zehaztu zure gastuen eta zer ordainketa egin beharko dituzun zergarekiko diru-sarreraren aurreikuspenaren arabera. Gauza bera gertatzen da gizarte segurantzaren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarekin (PFEZ) eta sozietateen zergarekin. Zenbat ordaindu behar dut? Zerga gehienak hiru hilez behin ordaindu behar dira, zehazki, hiru hilekoaren ondorengo hilabetean. Kontuan izan.

#### Emaitzen aurreikuspena

Zenbat irabaziko duzu? Aipatutako datu guztiak eskuratu ondoren, hileroko emaitzak eta zergak jaso. Noiz eskuratuko dituzu irabaziak? Zehaztu zenbat salduko duzun, eta zure irabazi-marjinek zein momentutan hartuko dituzten bere gain

gastuak negozioa onurak ematen has dadin.

#### Diruzaintza-aurreikuspena

Behar adina diru al daukazu kontu korrontean? Emaitzen kontuan, gastuak eta diru-sarrerak fakturazio datarekin zenbatzen dira. Ordainketa- eta kobrantza-epene arabera, aldaketa handiak egon daitezke kontu korrontean. Hori dela-eta, diruzaintza-aurreikuspena egin behar duzu, kontuan izanik hornitzaileen eta bezeroen ordainketa-baldintzak, eta zergen ordainketak.

**“Momentu perfektuaren zain bazaude, ez zara inoiz aterako zauden tokitik. Beharrezkoa da eromen apur bat pausua emateko” - Paulo Coelho**



## 4. LANTALDEA

**“Nire arrakastaren gakoa izan zen ni baino hobek diren pertsonen inguratzea” - Andrew Carnegie**

Gailurrerako igoera antolatzean, eskalatzaileak norekin igoko den pentsatu behar du: bakarrik igo daiteke edo konpainian. Erabakia dena dela ere, eskalatzaileak eroso sentitu behar du.

Ideari ekiteko garaian, garrantzitsua da aholkularitza-zerbitzua edukitzea, alderdi juridiko bakoitzaren alde on eta


txarren berri izatea, eta buruan daukagun ideari hobe dagokion bidea aukeratzea. Erabakia hartu ondoren, ez ahaztu badaezpada adituen aholkua entzuteaz: arrakastaren gakoa da ez beldurrik edukitzea profesional onenekin inguratzeko.

Pertsona juridiko bakoitzak zure enpresa planteamendurekiko ego-kiak izan daitezkeen ezaugarriak

ditu: ekintza mota, bazkide zenbakia eta euren diru- eta lan-ekarpena, enpresaren behar ekonomikoak, eragileen erantzukizuna, negozioaren zabalkundea eta alderdi fiskala.



## A. EGITURA JURIDIKOAK



## B. TAULA

**“Pertsona bati ondo dagokion zapata estua da beste batentzat, beraz, bizitzan ez dago guztiontzat egokia den errezetarik” - Carl Jung**

	Egitura juridikoa	Bazkide kopurua	Giza kapital minimoa	Erantzukizuna	Erregimen fiskala
PERTSONA FISIKOAK	ENPRESARI BAKARRA	1	Ez da legalki existitzen	Mugarik gabekoa	PFEZ
	ONDARE KOMUNITATEA	Gutxienez 2	Ez da legalki existitzen	Mugarik gabekoa	PFEZ
MERKATARITZA - SOZJETATEAK	ARDURA MUGATUKO SOZJETATEA	Gutxienez 1	3.005,06€ %100aren ordainketa	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga
	SOZJETATE MUGATUA, ENPRESA BERRIA	Gutxienez 1, eta gehienez 5, eraketa prozesuan	3.012€, gehienez 120.202€	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga
	SOZJETATE ANONIMOA	Gutxienez 1	60.101,21€, %25aren ordainketa	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga
MERKATARITZA - SOZJETATE BEREZIAK	LAN SOZJETATE MUGATUA	Gutxienez 3	LMS: 3.005,06€, %100aren ordainketa	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga
	LAN SOZJETATE ANONIMOA	Gutxienez 3	LSA: 60.101,21€, gutxienez, %25aren ordainketa	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga
	KOOPERATIBA SOZJETATEA	Lehen graduko kooperatiba: gutxienez 3, Bigarren graduko kooperatiba, gutxienez 2	Estatutuetan zehaztutakoa	Mugatua, emandako diru-kopurura	Sozietateen gaineko zerga (erregimen berezia)

## 5. IGOERA

“Momentu egokian ekitea, aurrera egitea da”  
- **Jorge González Moore**

### A. ENPRESA SORTZEKO IZAPIDEA

#### ENPRESARI BAKARRA

- Ez da berariazko izapiderik egin behar

#### ONDASUN KOMUNITATEA ETA SOZIJATE ZIBILA

- Eraketako kontratu pribatua  
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) eskaera  
- Ondare Transmisioaren Zergaren likidazioa

#### SOZIJATE MUGATUA

- Izen berdina ezaren ziurtagiria  
- Eskritura publikoa egilestea  
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) eskaera  
- Ondare Transmisioaren Zergaren likidazioa  
- Izen-ematea Merkataritza Erregistroan  
- Bazkide liburuaren legalizazioa  
- Akta-liburuaren eskuratzea

#### SOZIJATE ANONIMOA

- Izen berdina ezaren ziurtagiria  
- Eskritura publikoa egilestea  
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) eskaera  
- Ondare Transmisioaren Zergaren likidazioa  
- Izen-ematea Merkataritza Erregistroan  
- Bazkide liburuaren legalizazioa  
- Akta-liburuaren eskuratzea

#### LAN SOZIJATEAK

- Izen berdina ezaren ziurtagiria  
- Eskritura publikoa egilestea  
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) eskaera  
- Ondare Transmisioaren Zergaren likidazioa  
- Enpresako lan kalifikazioa  
- Izen-ematea Merkataritza Erregistroan  
- Bazkide liburuaren legalizazioa  
- Akta-liburuaren eskuratzea

#### KOOPERATIBA SOZIJATEA

- Izen berdina ezaren ziurtagiria  
- Eskritura publikoa egilestea  
- Identifikazio Fiskaleko Kodearen (IFK) eskaera  
- Ondare Transmisioaren Zergaren likidazioa  
- Izen-ematea Kooperatiba Erregistroan

Iritsi da eskalatzen hasteko momentua. Dagoeneko amaitu dira prestaketa-lanak, eta jada ez dago atzera bueltarik. Hemendik aurrera, helburua bidean gora egitea da, eman beharreko pausuak emanez.



## B. ENPRESA MARTXAN JARTZEKO IZAPIDEA

### Zentsu aitorten izapidea Foru Ogasunean

- **Zentsu-aitortpena**  
Langile autonomo gisa izen emateko, zerga-egoeraren laburpenaren berri ematen duen ziurtagiri eguneratua aurkeztu behar da Ogasunean: 037 ziurtagiria (pertsone fisikoak), eta 036 ziurtagiria (pertsone juridikoak).

- **Izen-ematea EJZ-n (Ekonomia-jardueren gaineko zerga)**  
Aurrera eraman behar dugun jarduerari dagokion epigrafean alta eman (840 inprimakia).

**Lekua:** Tolosako Ogasun-Ordezkaritza.  
**Helbidea:** San Francisco 45. 20400, Tolosa  
**Telefono-zenbakia:** 902 100 040

### Lan-izapidea Gizarte Segurantzari

- **Afiliazioa eta izen-ematea Langile Autonomoen Araubidean**  
Izena eman behar da Gizarte Segurantzari Langile Autonomoen Araubide Berezian.

- **Kontratututako langileen izen-ematea**  
Enpresa osatzen duten langileen izena eman behar da, eta, ondoren, langileen lan-kontratuak Estatuko Lan Zerbitzu Publikoan erregistratu behar dira, kontratua egin ondorengo hamar egunetan.

**Lekua:** Gizarte Segurantzari  
**Helbidea:** Aita Larramendi, 1. 20400 Tolosa  
**Telefono-zenbakia:** 943 675300

### Udaleko izapidea

Lokala irekiz gero, obra-lizentzia, jarduera-lizentzia eta irekiera-lizentzia eskatu behar dira Udaltaldean.

*Ikus eskualdeko 28 udalerrien zerrenda Helbide Erabilgarriak atalean.*

## GLOSARIOA

### Izendapen sozialaren ziurtagiri negatiboa

Sozietatea sortzeko izen bereko beste sozietaterik ez dagoela ziurtatzen duen egiaztagiria behar da.  
Lekua: Merkataritza Erregistro Orokorra

### Konstituzio idazketa publikoa

Bazkide-sortzaileek notario aurrean Konstituzio idazketa publikoa sinatzean datzan ekintza da.  
Lekua: Notarioa. Edozein notario.

### Identifikazio fiskaleko kodearen eskaera (IFK) behin-behineko txartela

NAN dokumentua daukagun moduan, enpresek euren identifikazio-kodea daukate helburu fiskalatarako. Lehenik eta behin, behin-behineko txartela eskuratu ohi da.  
Lekua: Ogasun Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia

### Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentuen Gaineko Zerga (OEZ + EJDZ)

Gure ondarea sortutako sozietatera eskualdatzean ezartzen den zerga da.  
Lekua: Ogasun Saila, Gipuzkoako Foru Aldundia

### Izen-ematea Lan sozietateen Erregistroan

Enpresa eskatzaileari lan ziurtagiria ematen dion ekintza da. Ondoren, Merkataritza Erregistroan eman behar da izena.  
Lekua: Eusko Jaurlaritzako Giza Ekonomia Zuzendaritza

### Izen-ematea Merkataritza Erregistroan

Sozietateari izaera juridikoa ematen dion ekintza da.  
Lekua: Merkataritza Erregistroa

### Izen-ematea Euskadiko Kooperatiben Erregistroan

Kooperatibari izaera juridikoa ematen dion ekintza da, merkataritza erregistroan izen-eman gabe.  
Lekua: Eusko Jaurlaritzako Giza Ekonomia Zuzendaritza



# HELBIDE ERABILGARRIAK

## TOLOSALDEA GARATZEN

Enpresak sortzeko informazioa eta aholkularitza-zerbitzua.

Laguntza enpresak marbxan jartzeko proiektuen garapenean.

**Helbidea:** Apataerreak Industriagunea, Apatta Kalea1, 20400 Tolosa

**Telefonoa:** 943 65 45 01

**Email:** tolosaldea@tolosaldea.eus

**Web:** www.tolosaldeagaratzen.eus

## LEHIBERRI

Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroa.

**Helbidea:** Apataerreak Industriagunea, Apatta Kalea1, 20400 Tolosa

**Telefonoa:** 943 65 45 01

**Email:** lehiberri@tolosaldea.eus

**Web:** www.lehiberri.eus

## TOLOSALDEAKO UDALAK

Negozioren irekieraren inguruko baldintzen informazioa.

Obra Lizentziak.

Irekiera lizentziak.

## Helbideak:

*Ikus hurrengo orrialdea (Tolosaldeako Udalak).*

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka.

**Helbidea:** Gipuzkoa Plaza z/g, 20004 Donostia

**Telefonoa:** 943 11 21 11

**Web:** www.gipuzkoa.eus

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Ogasun saila.

Ekonomia-jardueren gaineko zerga.

Zergen informazioa (BEZA, sozietateen zergak, PFEZ, EJDZ, etab.).

**Helbidea:** San Frantzisko 45,

20400 Tolosa

**Telefonoa:** 902 100 040

**Web:** http://www.gipuzkoa.eus/es/diputacion/hacienda-y-finanzas

## SPRI

Enpresa-garapenerako euskal agentzia.

**Helbidea:** Urkixo Zumarkalea 36, 48011 Bilbao

**Telefonoa:** 902 702 142

**Web:** http://www.spri.eus/es/creacion-de-empresas

## GIZARTE SEGURANTZARAKO PROBINTZIAKO HELBIDEA

Gizarte Segurantzaren inguruko informazio orokorra.

**Helbidea:** Larramendi Kalea 1, 20400 Tolosa

**Telefonoa:** 943 67 53 00

**Email:** gipuzkoa.administracion4.tgss@seg-social.es

**Web:** www.seg-social.es

## LANBIDE

Euskal Enplegu Zerbitzua.

**Helbidea:** Larramendi Kalea 3, 20400 Tolosa

**Telefonoa:** 943 02 38 42

**Email:** tolosa@lanbide.eus

**Web:** www.lanbide.euskadi.eus

## SEPE. Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa.

Enpresak marbxan jartzeko laguntza.

**Helbidea:**

Avenida de Barcelona 39, 20014 Donostia

Larramendi Kalea 3,

20400 Tolosa

**Telefonoa:** 901 01 01 21

**Web:** www.sepe.es

## GIPUZKOAKO MERKATARITZA ERREGISTROA

Izenaren ziurtapen negatiboaren eskaera.

Sozietatearen izen-emeata Merkataritza Erregistroan.

**Helbidea:** Plaza de Julio Caro Baroja 1, 20018 Donostia

**Telefonoa:** 943 31 67 10

**Email:** guipuzcoa@registromercantil.org

**Web:** www.mguipuzcoa.com

## Abaltzisketako Udala

**Telefonoa:** 943 65 29 00

**Email:** udala@abaltzisketa.eus

## Adunako Udala

**Telefonoa:** 943 69 25 71

**Email:** udala@aduna.eus

**Web:** www.aduna.net

## Albizturko Udala

**Telefonoa:** 943 65 44 26

**Email:** udala@albiztur.eus

**Web:** www.albiztur.com

## Alegiako Udala

**Telefonoa:** 943 65 30 16

**Email:** udala@alegia.eus

**Web:** www.alegia.net

## Alkizako Udala

**Telefonoa:** 943 69 02 35

**Email:** udala@alkiza.eus

## Altzoko Udala

**Telefonoa:** 943 65 24 13

**Email:** udala@altzo.eus

**Web:** www.altzo.net

## Amezketako Udala

**Telefonoa:** 943 65 31 89

**Email:** udala@amezketa.eus

## Anoetako Udala

**Telefonoa:** 943 65 12 00

**Email:** udala@anoeta.eus

**Web:** www.anoeta.net

## Asteasuko Udala

**Telefonoa:** 943 69 19 07

**Email:** udala@asteasu.eus

**Web:** www.asteasu.net

## Baliarraingo Udala

**Telefonoa:** 943 88 90 03

**Email:** udala@baliarrein.eus

## Belauntzako Udala

**Telefonoa:** 943 67 43 66

**Email:** udala@belauntza.eus

# TOLOSALDEKO UDALAK

## Berastegiko Udala

**Telefonoa:** 943 68 30 00

**Email:** udala@berastegi.eus

**Web:** www.dmacroweb.com/cp/berastegi

## Berrobiko Udala

**Telefonoa:** 943 68 32 94

**Email:** udala@berrobi.eus

## Bidania-Goiazko Udala

**Telefonoa:** 943 68 11 09

**Email:** udala@bidania-goiatz.net

## Elduaingo Udala

**Telefonoa:** 943 68 31 21

**Email:** udala@elduaian.eus

**Web:** www.elduain.com

## Gazteluko Udala

**Telefonoa:** 943 67 58 97

**Email:** udala@gaztelu.eus

## Hernialdeko Udala

**Telefonoa:** 943 65 44 94

**Email:** udala@hernialde.eus

## Ibarrako Udala

**Telefonoa:** 943 67 11 38

**Email:** udala@ibarra.eus

**Web:** www.ibarrakoudala.net

## Ikaztegiako Udala

**Telefonoa:** 943 65 33 29

**Email:** udala@tolosaldea.eus

**Web:** www.ikaztegieta.com

## Irurako Udala

**Telefonoa:** 943 69 13 33

**Email:** udala@irura.eus

**Web:** www.irura.net

## Larraulgo Udala

**Telefonoa:** 943 69 30 42

**Email:** udala@larraul.eus

## Leaburu-Txaramako Udala

**Telefonoa:** 943 67 59 31

**Email:** udala@leaburutxarama.eus

## Lizartzako Udala

**Telefonoa:** 943 67 07 00

**Email:** udala@lizartza.eus

## Orendaingo Udala

**Telefonoa:** 943 65 40 64

**Email:** udala@orendain.eus

## Orexako Udala

**Telefonoa:** 943 68 20 29

**Email:** udala@orexa.eus

## Tolosako Udala

**Telefonoa:** 943 65 44 66

**Email:** udala@tolosa.eus

**Web:** www.tolosa.eus

## Villabonako Udala

**Telefonoa:** 943 69 21 00

**Email:** idazkaritza@villabona.eus

**Web:** www.villabona.eu

## Zizurkilgo Udala

**Telefonoa:** 943 69 10 12

**Email:** zizurkilgo@zizurkil.eus

**Web:** www.zizurkil.com

# HURRENGO GAILURRA. BIDAIARAKO APUNTEAK



1 - NIRE IDÉIAREN ZIRRIBORRO BAT EGIN

2 - NIRE IDÉIA TOLOSALOEA GARATZENI AURKEZTU - DEITU ! 943 654 50 1

3 -